

**I. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA****Bizkaiko Foru Aldundia****Euskara eta Kultura Saila****Bizkaiko Foru Aldundiaren 22/2018 FORU DEKRETUA, martxoaren 6koa, Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara eta Kultura Sailaren Egitura Organikoari buruzko Erregelamendua onesten duena.**

Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 8ko 42/2016 Foru Dekretuaren bidez, Euskara eta Kulturako Foru Sailaren Egitura Organikoari buruzko Erregelamendua onetsi zen; horrek sailaren egitura organikoa egokitu nahi izan zuen, betiere Bizkaiko Foru Aldundiaren sailak zein haien jardun-eremu eta eginkizunak ezarri zituen Ahaldu Nagusiaren uztailaren 2ko 94/2015 Foru Dekretuan oinarrituta. Hala ere, foru dekretu hark beste urrats bat egin zuen, kirolen arloa hobeto eta arintasun handiagoz kudeatu ahal izateko.

Halaber, Foru Aldundian gazteriaren arloko politikak kudeatzeko erabili zen orientazio berriaren ondorik, foru sail honen barruan geratu ziren gazteriaren arloko programak eta gizarte- eta hezkuntza-programak kudeatzeko egitura Kultur Ekintzako Zerbitzuko atal baten inguruan antolatu zen.

Beste alde batetik, berregituratu egin ziren saileko zerbitzu nagusiak, aholkularitza integratua emateko arlo juridikoan, arlo ekonomikoan eta langileen arloan. Hala, desagertu zen Aholkuak Emateko eta Arauak Garatzeko Kabinetea zerbitzu gisa, eta haren eginkizunak Zerbitzu Orokorren egituraren barruan sartu ziren.

Une honetan, Bizkaiko Foru Aldundiak, bere sailei dagozkien eskumen eta eskudantziak modu efikazago eta efizienteagoan antolatze aldera, beharrezkotzat hartzen du astialdiko erakundeak eta astialdiko hezitzaileak prestatzen dituzten eskolak sustatzeko politikak berriro bateratzea Euskara eta Kultura Sailaren barruan. Horrela, sail horrek laguntza-dekretu bi kudeatuko ditu aurrerantzean; laguntzok astialdiarekin lotuta dauden elkarteentzat izango dira, eta orain arte Ahaldu Nagusiaren Kabineteak kudeatzen izan ditu; modu honetara, Bizkaiko Foru Aldundiak solaskide bakarra izango du eremu horretan lanean diharduten elkarteekin. Horregatik guztiagatik, beharrezkotzat hartzen da Euskara eta Kulturako Foru Sailari, martxoaren 8ko 42/2016 Foru Dekretuaren arabera, eman zitzaizkion eskumenak aldatzea.

Hain zuzen ere, aldaketa horren ondorioz, Euskara eta Kultura Sailak bere gain hartuko ditu haurren eta nerabeen aisia eta astialdiri eragiten dioten eskumenak, bai eta gizarte-sektoreko erakundeekin arlo horretan egin beharreko prestakuntza eta koordinazioa ere. Halaber, aisia eta astialdiko eremuan lanean diharduten erakundeen sustapena, suspertzea eta laguntza ukitzen ditu, bai eta erakunde horiek egiten dituzten gizarte-hezkuntzako programak eta proiektuak eta jarduerak ere. Aldaketa horrek aisia eta astialdirako eskola ofizialei buruzko araudiko alderdi hauei ere eragingo die: eskola horien onarpena; eskola horiei ohartarazpenak egitea; onarpena baliorik gabe uztea, eta onarpena kentzeko ebazpenak.

Era berean, abaguneaz baliatzen gara Kultura Zuzendaritza Nagusia birmoldatzeko, zelan eta Kultura Garatu eta Zabaltzeko Atala, batetik, eta Argitalpenen eta Kultura Jardueren Atala, bestetik, bat eginez; horrela, atal bakarra sortuko da, Argitalpenen eta Kultura Zabalkundearen Atala izango dena; beraz Kultur Ekintzako Zerbitzuaren mendean izango da, eta beraren bidez bideratuko dira argitalpenetarako eta kultura-jardueren zabalkunderako politika guztiak, bai Aldundiarenak berarenak, bai bestelako eragileek sakatatutakoak.

Kultura Ondarearen Zerbitzuari dagokionez, haren mendeen dauden eraikinak mantentzeko eginkizunak berriro antolatu dira, eta eginkizunok zuzenean izango dira zerbitzuko burutzaren mendeen.



Azkenik, abagune honetaz baliatzen gara Euskara eta Kultura Sailaren Egitura Organikoari buruzko Dekretutik sailaren Kontratazio Mahaia kentzeko, eta arrazoia hau da: Bizkaiko Foru Aldundiaren maiatzaren 10eko 86/2016 Foru Dekretuaren bigarren xedapen gehigarriaren arabera (foru dekretu horrek onetsi zuen Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako Sailaren Egitura Organikoari buruzko Erregelamendua), Kontratazio Mahai Nagusi iraunkorra sortu zuen, eta haren osaera ezberdina da, betiere kontratazioa sustatzen duen organoaren jarduketa eta eginkizunen arloaren irizpidean datzalarik.

Hori dela eta, Bizkaiko Kondaira Lurraldeko Foru Erakundeen Hautapen, Antolake-ta, Erregimen eta Funtzionamenduari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 17.1.14 eta 60. artikuluek emandako eskumenen arabera, Euskara eta Kulturako foru diputatuak proposatuta, Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluak 2018ko martxoaren 6an eginiko bileran eztabaidatu eta onetsi ondoren, honako hau

XEDATZEN DA:

Artikulu bakarra.— Euskara eta Kultura Sailaren Egitura Organikoari buruzko Erregelamendua onestea

Euskara eta Kultura Sailaren Egitura Organikoari buruzko Erregelamendua onesten da. Erregelamendua foru dekretu honi batu zaio, eranskin gisa.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehenengoa.— Sailari atxikitako erakundeak

Euskara eta Kulturako Foru Sailari hauek atxikitzen zaizkio:

- a) Euskalduna Jauregia-Palacio Euskalduna, SA foru-enpresa publikoa.
- b) BizkaikOA FEEP foru-erakunde publiko enpresariala (abenduaren 22ko 5/2010 Foru Arauaren bidez sortu zen).
- c) Foru-sektore publikoren fundazio hauek: Juan Crisóstomo de Arriaga—Bilbao Orkestra Sinfonikoa Fundazioa, Bizkaia Bizkaialde Fundazioa eta Azkue Fundazioa.

Bigarrena.— Ordezpenak egiteko hurrenkera

1. Saileko zuzendaritza nagusien titularrak elkarren ordezko izango dira haietako bat oporretan dagoenean, ez dagoenean edo gaixorik dagoenean.

Ordezteko hurrenkera kargu horretako antzinatasunik handiena kontuan hartuz zehaztuko da eta, irizpide horren arabera zuzendari batzuk egoera berean badaude, adinez nagusia dena izango da ordezkoa.

2. Oro har, saileko edozein zerbitzuren titularra oporretan dagoenean, ez dagoenean edo gaixorik dagoenean, zerbitzu horri atxikitako atalburuetatik karguan antzinatasunik handiena duenak hartuko ditu automatikoki haren eginkizunak. Atalei dagokienez, berriz, atalari atxikita dagoen maila handieneko funtzionarioa izango da ordezkoa, eta, irizpide horren arabera funtzionario batzuk egoera berean badaude, adinez nagusia dena.

XEDAPEN INDARGABETZAILEAK

Bakarra.— Indargabetutako xedapenak

Indargabeturik gelditzen dira foru dekretu honetan xedatzen denaren aurka dauden maila bereko zein beheragoko xedapenak eta, bereziki, Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 8ko 42/2016 Foru Dekretua, Euskara eta Kultura Sailaren Egitura Organikoari buruzko Erregelamendua onetsi zuena.



AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.— Erregelamenduz garatzeko gaikuntza

Gaitasuna ematen zaio Euskara eta Kulturako foru diputatuari foru dekretu honetan ezarritakoa garatu, betearazi eta aplikatzeko beharrezkotzat jotzen dituen xedapen guztiak eman ditzan.

Bigarrena.— Indarrean jartzea

Foru dekretu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun berean jarriko da indarrean.

Bilbon, 2018ko martxoaren 6an.

Euskara eta Kulturako foru diputatua
LOREA BILBAO IBARRA

Ahaldun Nagusia
UNAI REMENTERIA MAIZ

**ERANSKINA****EUSKARA ETA KULTURA SAILAREN EGITURA
ORGANIKOARI BURUZKO ERREGELAMENDUA****I. KAPITULUA****ANTOLAKUNTZA OROKORRA****1. artikulua**

Bizkaiko Foru Aldundiak kulturaren arloan dituen eskumenak Euskara eta Kultura Sailari dagozkio; eskumen horien artean esanguratsuenak honako hauek dira:

- a) Bizkaiko ondare historikoa eta kulturala, haren agerkeria guztietan, ezagutu, zaindu eta zabaltzea; horrez gainera, ondare hori hurrengo belaunaldiei modurik egokienean transmititzeko beharrezkoak diren ekintza eta programa guztiak garatzea.
- b) Bizkaiko kultura-ekipamenduen mapa sustatzea, Bizkaiko Lurralde Historikoan azpiegitura-sistema orekatu bat izateko.
- c) Museo-, agiritegi- eta liburutegi-ekipamenduak sortu eta mantentzea, bai eta Bizkaiko interesgarria izan daitekeen beste edozein kultura-erakunde ere.
- d) Bizkaian kultura sustatu eta zabaltzea, gure kulturaren ezagutza eta garapenetik abiatuta eta beste kultura guztiei atea zabalduz.
- e) Kirola eta kirol espiritua sustatzea, kirola egiteko aukerak ematea (batez ere, umeei eta gazteei) eta belaunaldien arteko kirola erraztea.
- f) Maila guztietako kirol lehiaketak eta jarduerak sustatu eta koordinatzea, gure gizartean kirola aktiboki ager dadin eta harekiko zaletasuna bultzatzea.
- g) Bizkaiko kirol ekipamenduen plangintza egitea, eta bizkaitarren artean kirola egitea sustatuko duten kirol instalazioak sortzeko laguntza ematea.
- h) Laguntza ematea kirolerako gaitasun nabarmena agertzen duten kirolariei.
- i) Gazteentzako ekipamenduak eta instalazioak kudeatzea, eta gazte-aterpetkeen foru sarea zaindu eta kudeatzea.
- j) Umeak eta nerabeak artatzea udaleku eta kanpamentuetako jardueretan.
- k) Euskararen ezagutza eta erabilera sustatzea, bai eta haren normalizazioaren aldeko jarrerak ere, honako irizpide hauen arabera: ekintza positiboa, herritarren hizkuntza-eskubideen errespetua eta euskara EAEko hizkuntza propio eta ofizial gisa aintzatestea.
- l) Bizkaiera bereziki bultzatzea, ahozko eta idatzizko ondarea berreskuratuz.
- m) Bizkaiko Lurralde Historikoan euskararen alde lan egiten duten profesionaleri eta elkarteei laguntzea.
- n) Euskara hurbiltzea Bizkaira etorri berri diren taldeei, euskara beretu dezaten eta, horrela, Bizkaiko gizartea egituratzeko elementu izan dadin.
- ñ) Hizkuntza-eskakizunak direla-eta Bizkaiko Foru Aldundiak dituen eskumenak gordetzea eta Foru Administrazioan euskara erabil dadila bultzatzea, benetako elebitasuna indartzeko hala erakundean bertan nola kanpoko harremanetan.
- o) Legeek, oro har, esleitutako eskumenak erabiltzea, bai eta beste administrazio-organo batzuek sailaren esku utzitako eskumenak ere.

2. artikulua

1. Sailak, saileko foru diputatuaren aginpidearen pean, honako egitura hau izango du: zuzendaritza nagusiak, zerbitzuak eta atalak.

2. Esandakoaren arabera, Euskara eta Kultura Sailak oinarrizko egitura hau du:

- a) Euskara eta Kulturako foru diputatua.



- b) Zuzendaritza nagusiak. Honako hauek ezarri dira:
 - Kultura Zuzendaritza Nagusia.
 - Euskara Zuzendaritza Nagusia.
- c) Zerbitzu Orokorrak.
- d) Kirol Zerbitzua.
- 3. Kultura Zuzendaritza Nagusiak honako hauek ditu atxikita, bai egiturari bai eginkizunei dagokienez:
 - Kultura Ondarearen Zerbitzua.
 - Kultur Ekintzako Zerbitzua.
- 4. Euskara Zuzendaritza Nagusiak honako hau du atxikita, bai egiturari bai eginkizunei dagokienez:
 - Euskara Zerbitzua.
- 5. Euskara eta Kulturako foru diputatuaren mende daude Zerbitzu Orokorren Zerbitzua eta Kirol Zerbitzua.

3. artikulua

- 1. Egitura horren arabera, Euskara eta Kultura Saileko zuzendaritza nagusiak unitate organikoak dira, eta haiei dagokie sailari atxikitako eskumen-bloke homogeenak betearaztea; gainera, kasuan kasuko politikak sortu, betearazi eta ebaluatzen lagunduko diote sailari.
- 2. Zerbitzuak administrazio-unitateak dira eta zuzendaritza nagusien mende-mendean daude, edo, bestela, foru diputatuaren mende-mendean; horrezaz gainera, eskumenen arlo homogeenak kudeatzeaz arduratuko dira.
- 3. Atalak administrazio-unitateak dira, eta beraiei dagokien zerbitzuari esleitutako eskumen-arlo homogeenen barruko auziak eta gaiak kudeatzen dituzte.

4. artikulua

- 1. Euskara eta Kultura Saila foru diputatuaren goi-zuzendaritzaren mendean dago, eta foru diputatu horrek indarrean dagoen legezko arautegian eta, batez ere, Bizkaiko Kondaira Lurraldeko Foru Erakundearen Hautapen, Antolaketa, Erregimen eta Funtzionamenduari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauan aitortzen zaizkion eskudantziak betetzen ditu, lehenengo artikuluan aipatutako arloei dagozkienez.
- 2. Era berean, Euskal Kultur Ondareari buruzko Legearen 108. artikuluan xedatzen denaren arabera izapidetutako zehapen-espeditenteak ebatziko ditu, baldin eta lege horren arabera Bizkaiko Foru Aldundiari badagokio zehapena jartzea eta jarri beharreko zehapenaren zenbatekoa 150.253,03 eurotik gorakoa ez bada. Muga horretatik gora, espeditentea ebatzeko eskumena Foru Aldundiari berari dagokio.

II. KAPITULUA

ZUZENDARITZA NAGUSIAK

5. artikulua

Saileko zuzendaritza nagusi bakoitzean zuzendari nagusi bat izango da, eta honako eginkizun hauek izango ditu:

- a) Bere zuzendaritzari dagozkion arloetan ekiteko politikak lantzea eta foru diputatuari aurkeztea.
- b) Zuzendaritza nagusiaren jardunak zuzendu, koordinatu, bultzatu eta gainbegiratzeko.
- c) Laguntza ematea foru diputatuari, agindu zaizkion eginkizunen eremuan.
- d) Sailaren urteko jardueren programazioa sustatzea eta hura egiten laguntzea.



- e) Zuzendaritza nagusiak atxikita dituen edo zuzendaritzaren barruan dauden zentro, erakunde, enpresa publiko eta administrazio-unitateen jardunbidea ikuskatzea, kontrolatzea eta, ondorioz, jardunbide hori egokitzea.
- f) Zuzendaritza nagusiari dagokion arloan, eman beharreko xedapenak proposatzea foru diputatuari, hark eman ditzan.
- g) Diru-laguntzak emateko proposamena egitea foru diputatuari.
- h) Otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 44.4 artikuluan eta harekin bat datozen guztietan xedatutakoarekin bat, foru diputatuak eskuordetzen dizkion eginkizunak betetzea.
- i) Eta, oro har, foru diputatuak agintzen dizkion eginkizunak edota indarrean dauden antolamendu juridikoak esleitutakoak betetzea.

6. artikulua

1. Sailaren barruan, Kultura Zuzendaritza Nagusia arduratuko da foru dekretu honen 5. artikuluan kulturaren arloan, eta aisia eta astialdiaren arloan aipatzen diren eginkizunak garatzeaz. Kulturaren arloari dagokionez, Euskal Kultur Ondareari buruzko Legeak eta, subsidiarioki, Espainiako Ondare Historikoari buruzko Legeak Bizkaiko Foru Aldundiari esleitzen dizkioten eskumenen artean, hauek dira jarduteko arlorik esanguratsuak: Lurralde Historikoaren titulartasunpeko museoen kudeaketa kontrolatzea; Bizkaiko Agiritegi Historikoaren eta Bizkaiko Foru Liburutegiaren inguruan Aldundiak dituen eskumen eskusiboak kudeatzea; kultura sustatzea eta zabaltzea Bizkaian; Aldundiaren kultura-proiektuak garatzea, eta Foru Aldundiaren argitalpenak argitaratzea.

Aisia eta astialdiari dagokionez, zuzendaritza honi dagokio: aterpetheen foru-sarea; laguntza ematea ume eta nerabeentzako udaleku eta kanpamentuen eskaintzari, astialdiko prestakuntzari, aisia eta astialdian lanean diharduten elkarten koordinaziorako egiturei; bai eta Udalekuak udako kanpaina koordinatu eta kudeatzea ere.

2. Era berean, Kulturako zuzendari nagusiari dagokio ebazpenak ematea Euskal Kultur Ondareari buruzko Legearen hurrengo artikuluetan ezarritako kasuetan:

- a) 20.2, 32.1 eta 48.2 artikuluetan ezarritako etendurak.
 - b) 22.1, 24.2, 29.1, 29.2, 45.1, 45.5, 45.6 eta 49.2 artikuluetan ezarritako baimenak.
 - c) 23., 24.1, 33. eta 35.1 artikuluetan ezarritako xedapenak.
3. Era berean, Kultura Zuzendaritza Nagusiaren titularrari hauek dagozkio:
- a) Haur eta gazteen aisiarako hezitzaileak trebatzeko eskolen aitorten ofiziala; berau Eusko Jaurlaritzaren azaroaren 2ko 419/1994 Dekretuaren 5.1 artikuluan ezarrita dago.
 - b) «Haur eta gazte taldeen lojamendu eta egonaldietarako aterpetxe eta instalazioen» aitorten ofiziala, Eusko Jaurlaritzaren urriaren 18ko 406/1994 Dekretuaren 4.2.a) eta 8. artikuluetan ezarrita dagoena, eta ohartarazpenak eta aitorten horiek kentzeko ebazpenak, dekretu horietan ere ezartzen denaren arabera.

4. Kultura Zuzendaritza Nagusiaren mende daude: Kultura Ondarearen Zerbitzua eta Kultur Ekintzako Zerbitzua.

7. artikulua

1. Sailaren barruan, Euskara Zuzendaritza Nagusia arduratuko da foru dekretu honen 5. artikuluan euskararen arloari dagokionez aipatzen diren eginkizunak garatzeaz. Zuzendaritza honi hau dagokio: euskara sustatzea Bizkaian; euskararen arloko Bizkaiko elkarteei laguntzea eta haiek koordinatzea; toki-erakundeei eta mankomunitateei aholku eta laguntza ematea euskararen erabilera normalizatzeko planetan; euskarazko argitalpenak bultzatzea; hizkuntza-eskakizunak ezarri eta betearaztea; foru administrazioan sortzen diren testuak beste hizkuntza batzuetara itzultzea; hizkuntza-teknologiaren arloan dauden baliabideak erabil daitezen sustatzea eta euskarazko administrazio-hizkera eta terminologia juridiko-administratiboa harmonikoki garatzea.



2. Era berean, Euskararen erabilera normalizatzeko 1982ko azaroaren 24ko 10/1982 Legean ezarritakoa dagokio Euskara zuzendari nagusiari, bai eta Euskara Sustatzeko Ekintza Planean Bizkaiko Foru Aldundiari eta haren foru erakunde autonomoei dagokienez ezartzen dena ere.

3. Euskara Zuzendaritza Nagusiaren mende Euskara Zerbitzua dago.

III. KAPITULUA

BURUTZEN ESKUDANTZIAK

8. artikulua

1. Zerbitzuburuak zuzendaritza nagusien mende daude zuzenean, edo, bestela, foru diputatuaren mende, eta haien aurrean erantzun behar dute. Bada, zerbitzuburuak beren ardurapeko zerbitzuei atxikita dauden administrazio-unitateak zuzendu behar dituzte.

2. Zerbitzuburuak erantzule nagusiak dira sailaren barruko zuzendaritza-estamentuaren aurrean; hain zuzen ere, haiek dira zerbitzuaren barruko administrazio-unitateek egindako lanaren zuzendaritza, kudeaketa eta kontrolaren arduradunak, baina kontrol hori atalburu bakoitzari egiten zaio zuzen-zuzenean.

3. Oro har, hauek dira zerbitzuburuari dagozkien eginkizunak:

- a) Zerbitzua zuzentzea eta kudeatzea.
- b) Zuzendari nagusiei edo, bestela, foru diputatuari, proposatzea zerbitzuari dagozkion eskumenen barruan bidezkotzat jotzen diren xedapen eta ebazpenak.
- c) Laguntza tekniko espezializatua ematea zuzendari nagusiei edo, bestela, foru diputatuari.
- d) Beren zuzendaritzako administrazio-unitateen barruko jardunbideari buruzko araubidea ezartzea, Zerbitzu Orokorrekin koordinaturik.
- e) Zerbitzuak gauzatu behar dituen programen aurrekontu-esleipenari buruzko proposamena lantzea, eta, hori egin ondorik, programok kudeatu eta ondo aplikatzen direla kontrolatzea, bai eta haien jarraipenaren erantzukizuna hartzea ere.
- f) Beren administrazio-unitateei atxikitako langileen zuzeneko kontrola, zuzendaritza eta agintea.
- g) Erraztasunak jartzea, zerbitzuen arteko informazio-trukea ahalbidetzeko, eta arazo batzuen inguruan saileko Zerbitzu Orokorrekin lankidetzan aritzea, baldin eta arazo horien eskumena eratzikita badute zerbitzu horiek.
- h) Zerbitzuaren urteko betearazpen-txostena idaztea; Aldundiaren Plan Informatikoa kudeatzea, eta, beren eskumenerako arloari dagokionez, Aldundiaren web orria egunean izatea.
- i) Kulturaren arloan zerbitzuarekin lan egiten duten erakundeen jarraipena egitea eta erakundeoi laguntza teknikoa ematea.
- j) Beren administrazio-unitateetan, bazterkeriarik ez egoteko eta aukera-berdintasuna bultzatzeko neurriak hartzea.
- k) Zerbitzuaren eskumen-eremuan, nagusiek agintzen dizkieten ataza guztiak egitea.

9. artikulua

1. Ataleko buruak zerbitzuburuaren mende daude zuzenean, eta beren ardurapeko administrazio-unitateak zuzendu eta kudeatu behar dituzte.

2. Oro har, honako eginkizun hauek dituzte atalburuek, beren atalaren eskumenerako gaietan:

- a) Atalak garatutako jarduerarekin zerikusia duen arautegia proposatzea zerbitzuburuari, hark onetsi dezan.
- b) Azterlan eta txostenak prestatzea edo prestatzeko lanak ikuskatzea, eta azterlan-txostenok zerbitzuburuari aurkeztea, azter ditzan.



- c) Atalean egindako lanak zuzentzea eta ikuskatzea, eta beren-beregi zaintzea administrazio-prozedura betetzen dela.
- d) Atalari atxikitako langileak kudeatzea, zerbitzuburuaren ikuskatzailetzapean.
- e) Atalaren jardueren urteko memoria prestatzea eta zerbitzuko buruari ematea, azter dezan, gero Zerbitzu Orokorretara bidaltzeko. Gainera, Aldundiaren Plan Informatikoan atalari dagokion zatia kudeatzea, eta Aldundiaren web orria egunean izatea.
- f) Atalaren eginkizunak betetz, atalburuari dagozkion administrazio-espeditentak kudeatzea, kontrolatzea eta haien jarraipena egitea.
- g) Beren atalaren berezko eginkizunak egitea bereziki.
- h) Eta, atalaren eskumenen eremuan, nagusiek agintzen dizkieten ataza guztiak egitea.

IV. KAPITULUA

ZERBITZU OROKORRAK

10. artikulua

Zerbitzuaren titularrak zerbitzuburu maila du, eta foru dekretu honetako 8.3 artikuluan bildutako eginkizunak betetzen ditu, betiere zerbitzuko atalei dagozkien gaitan. Eginkizun orokor horiez gainera, Zerbitzu Orokorren buruak berezko dituen eginkizun hauek bete behar ditu, besteak beste:

- a) Sailaren kudeaketa administratiboa, ekonomikoa eta juridikoa optimizatzeko beharrezkoak diren ekintza teknikoak eta sailaren barruko harremanak planifikatzea.
- b) Sailaren kudeaketa ekonomikoa koordinatzea: aurrekontua eta hari dagozkion txostenak prestatzea, eta gastuaren kontabilitate-izapidetzea sustatu, ikuskatu eta haren jarraipena egitea, sail guztian.
- c) Sailaren langileen prestakuntza- eta sustapen-politika betearaztea, kontuan hartuta Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanerako Sailak ere eskumenak dauzkala arlo honetan.
- d) Aholkularitza teknikoa eskaintzea oro har aplikatzekoak diren gai administratiboetan: aurrekontuen kudeaketa, diru-laguntzak, sailaren kontratazio administratiboaren kudeaketa eta izapidetzea, eta abar.
- e) Saileko baliabide materialak eta pertsonalak zein diren zehaztea, nola kudeatu erabakitzea eta haien banaketa egitea, Foru Aldundiak ezarritako politika orokorraren arabera eta arlo horretarako izendatzen diren aurrekontu-baliabideen arabera.
- f) Sailari Aldundiaren Plan Informatikoan dagokion zatiaren plangintza, koordinazioa, jarraipena, kontrola eta kudeaketa egitea.
- g) Foru Aldundiak sail honen esku utzi duen erregistro nagusia antolatzea eta administratzea, bai eta sailari atxikitako ondasun higigarrien inbentarioa ere.
- h) Saileko instalazio, azpiegitura eta ekipoen mantentze-lanak eta segurtasuna kudeatzea, bai eta laneko arriskuen prebentzioaren eta lan-osasunaren arloan sail honetan eman beharreko xedapenak koordinatzea eta aplikatzea ere.
- i) Sailaren araudia prestatzeko orduan, sailaren unitate organikoen arteko koordinazio juridikoa egitea, bai eta beste foru sail batzuekiko behar dena ere.
- j) Sailaren babespeko eta sailari atxikitako erakundeei aholkularitza juridikoa eta ekonomikoa ematea eta haien jarraipena egitea.

11. artikulua

Zerbitzu Orokorrek atal hauek izango dituzte:

- Aholkularitza Teknikoaren eta Langileria Atala.
- Aurrekontuen eta Kudeaketaren Atala.

**12. artikulua**

1. Aholkularitza Teknikoaren eta Langileriaren Ataleko buruak atalburu maila du, eta foru dekretu honetako 9. artikuluan bildutako eginkizunak betetzen ditu, betiere bere atalari dagozkion gaietan.

2. Aholkularitza Teknikoaren eta Langileriaren Ataleko buruari, oro har, saileko langileen kudeaketaz, administrazio-kontratazioaz eta aholkularitza juridikoaz eta antolaketata-atazez arduratzea dagokio, eta, hain zuzen ere, berezko dituen eginkizun hauek beteko ditu, besteak beste:

- a) Sailaren kontratazio-espedienteen analisia, kontrola eta jarraipen teknikoa egitea, bai eta Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako Sailak kudeatzen dituen kontratazio-espedienteena ere.
- b) Irizpideak finkatzen laguntzea, hala sailak dituen langile beharrianak zehazteko, nola haien hornidurarako era juridikoa erabakitzeko.
- c) Langileen arloan oro har ematen diren xedapenak betetzen direla zaintzea, eta, bereziki, negoziazio kolektiboaren tresnan jasotako xedapenak, Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako Sailak dituen eskumenak gorabehera.
- d) Honako hauek zaintzea eta mantentzea: sailaren esku utzitako erregistro nagusia, sarrera-irteeren erregistroa eta sailaren foru aginduen erregistroa.
- e) Sailaren ondare-erantzukizunari buruzko erreklamazioen espedienteak kudeatzea.
- f) Saileko administrazio-unitateei aholkularitza tekniko-juridikoa ematea eta unitate horiek koordinatzea, sailaren eskumenerako gai guztietan.
- g) Sailaren eskumenerako gaietan, foru arauen aurreproiektuei, foru dekretuen zein foru aginduen proiektuei eta bestelako arauari eta ekintzei buruzko eta haien kontra jarritako errekursoei buruzko txostenak eta azterketak egitea, aholkularitza eskaintzea eta goi-mailako proposamenak egitea goragoko kargudunei.
- h) Euskara eta Kultura Sailak Bizkaiko Foru Aldundiari proposatzen dizkion gaiak izapidetzea eta bidaltzea, Aldundiak gaiok aztertu eta, behar denean, onets ditzan.

13. artikulua

1. Aurrekontuen eta Kudeaketaren Ataleko buruak atalburu maila du, eta foru dekretu honetako 9. artikuluan bildutako eginkizunak betetzen ditu, betiere bere atalari dagozkion gaietan.

2. Aurrekontuen eta Kudeaketaren Ataleko buruari, oro har, sailaren arlo ekonomikoaz arduratzea dagokio, bai eta haren agiritegi orokorraz arduratzea ere. Horrez gainera, berezko dituen eginkizun hauek beteko ditu, besteak beste:

- a) Sailaren aurrekontu-proiektua prestatzeaz eta txosten ekonomikoak egiteaz arduratzea.
- b) Saileko zerbitzuen gastu-espedienteak jasotzea; gastuon fiskalizazioa egitea, aurretiazkoa edo behin betikoa, kasu bakoitzean dagokiona; gastuari buruzko arautegia gertatzea; espediente horiek izapidetzea eta haien jarraipena egitea, eta, gero, espedienteok banatzea eta artxibatzea, bai eta nola betetzen diren jakiteko aldian-aldian txostenak egitea ere.
- c) Zergaz besteko diru-sarrerak kudeatzea, harik eta likidatu arte, baldin eta haien titularrak saila bada; horrezaz gainera, sailaren gainerako diru-sarrerak kontrolatzea eta haien jarraipena egitea.
- d) Sailaren kontratazio-espedienteen ekonomia- eta kontabilitate-jarraipena egitea, bai eta Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako Sailak kudeatzen dituen kontratazio-espedienteena ere.
- e) Sailaren ondasun higigarrien eta higiezin inbentarioa eguneratuta izatea.

**V. KAPITULUA**
KIROL ZERBITZUA**14. artikulua**

Zerbitzuaren titularrak zerbitzuburu maila du, eta foru dekretu honetako 8.3 artikuluan bildutako eginkizunak betetzen ditu, betiere Zerbitzuko atalei dagozkien gaitetan. Eginkizun orokor horiez gainera, Kirol Zerbitzuko buruak berezko dituen eginkizun hauek bete behar ditu, besteak beste:

- a) Jarduera-neurriak programatzea eta garatzea, herritar guztiei oro har zuzenduriko arlo hauekiko kirola sustatzeko: udal kirola, federatua, osasun-kirola eta jolas kirola. Horrekin batera, desgaitasuna dutenentzat, emakumeentzat eta talde minoritarioentzat jarduera espezifikoak antolatzea.
- b) Kirol Etxearen eta Foru Aldundiaren kirol azpiegituren kudeaketa gainbegiratzea. Bizkaiko Lurralde Historikoak kirolen arloan dituen beharrak aztertzea, kirol azpiegiturretan egin behar diren inbertsioen plana prestatzeko.
- c) Bizkaiko eragileen jarduera koordinatzea eta dinamizatzea, kasuan kasuko kirol modalitateak sustatzeko plan estrategikoak ezartzeko, bai eta erakundeen arteko beste era bateko planak eta jarduerak ere koordinatzea eta dinamizatzea.
- d) Etorkizun handiko kirolaren arloan, osasun-kirolaren arloan eta eskola-umeei egiten zaizkien osasun-azterketetan, bizkaitarrentzako laguntza tekniko eta medikoa bultzatzea eta sustatzea. Horrez gainera, lurraldearentzat interesa izango duten kirol erakundeak sortu eta gara daitezkeen sustatzea, eta haiei aholkularitza eskaintzea.

15. artikulua

Kirol Zerbitzuak honako atal hauek ditu:

- Eskola Kirolaren Atala.
- Kirol Federatuaren Atala
- Udal Kirolaren eta Kirol Azpiegituren Atala.

16. artikulua

1. Eskola Kirolaren Ataleko buruak atalburu maila du, eta foru dekretu honetako 9. artikuluan bildutako eginkizunak betetzen ditu, betiere bere atalari dagozkion gaitetan.

2. Eskola Kirolaren Ataleko buruari, oro har, Bizkaiko eskola-umeei gorpuz-jardueretan eta kirolean duten parte-hartzeaz arduratzea dagokio, eta horretan arreta berezia jarriko die Hezkuntza-administrazioak adin bakoitzerako ezarritako helburuei eta balioei. Atalburu horren berezko eginkizunak hauek dira, besteak beste:

- a) Bizkaiko eskola kirolaren programa diseinatzea, haren helburuak zehaztea, plana koordinatzea eta betearaztea, bai eta erakundeen arteko beste plan batzuk gauzatzea ere, Eusko Jaurlaritzarekin eta beste foru aldundiekin elkarlanean.
- b) Eskola kirolaren arloan, etengabeko hobekuntza sustatzea, eta, horretarako, teknikarien trebakuntza sustatzea eta gauzatzea, eskola-ume kirolarientzako osasun-azterketak kudeatzea eta kirol hezkuntza egoki baterako ekintzak egitea.
- c) Desgaitasuna duten eskola-umeei zein andrazkoek kirolean parte-hartzea ahalbidetzen eta areagotzen duten kanpainak diseinatzea eta gauzatzea, bai eta Bizkaiko eskola-umeen artean euskal kirol estrategikoak sustatzea eta bultzatzea ere.
- d) Araudiak Bizkaiko kirol federazioei, udalei eta beste kirol erakunde batzuei eskola kirolaren arloan esleitzen dizkien eginkizunak betetzen direla zaintzea eta koordinatzea.

**17. artikulua**

1. Kirol Federatuaren Ataleko buruak atalburu maila du, eta foru dekretu honetako 9. artikuluan bildutako eginkizunak betetzen ditu, betiere bere atalari dagozkion gaietan.
2. Kirol Federatuaren Ataleko buruak, oro har, Bizkaiko kirol egiturak mantentzeaz eta sustatzeaz arduratu behar du, eta, zehazkiago esateko, berezko dituen eginkizun hauek beteko ditu, besteak beste:
 - a) Kirol federatuaren arloan, hura sustatzeko, bultzatzeko eta, behar denean, hartan parte hartzeko neurriak proposatzea; neurriok kudeatzea, eta, behar denean, haien jarraipena egitea.
 - b) Foru Aldundiaren kirol instalazioen kudeaketa zuzentzea, kudeaketa hori zuzenean egiten denean, eta instalazio horien kudeaketa kontrolatzea, kudeaketa hori administrazio-emakidaren bidez egiten denean.
 - c) Etorkizun handiko kirolarientzako laguntza teknikorako eta kirol medikuntzako unitateen sorrera, mantentze-lanak eta koordinazioa kudeatzea.
 - d) Araudiak Bizkaiko kirol federazioei eta beste kirol erakunde batzuei esleitzen dizkien eginkizunak betetzen direla zaintzea eta koordinatzea, bai eta zerbitzu mankomunatuak bultzatzea ere.
 - e) Desgaitasuna duten herritar federatuei zein emakume federatuei kirola egiteko bidea ematen dieten kanpainak diseinatu eta garatzea, bai eta federazioen arloan euskal kirol estrategikoak sustatzea eta bultzatzea ere.

18. artikulua

1. Udal Kirolaren eta Kirol Azpiegituren Ataleko buruak atalburu maila du, eta foru dekretu honetako 9. artikuluan bildutako eginkizunak betetzen ditu, betiere bere atalari dagozkion gaietan.
2. Udal Kirolaren eta Kirol Azpiegituren Ataleko buruaren ardura izango da, oro har, Bizkaiko biztanleek parte har dezaten gorputz-jardueran bezala kirolean. Atalburu horren berezko eginkizunak hauek dira, besteak beste:
 - a) Bizkaiko herrietan kirol arloko helburuak bultzatu, babestu eta definitzea. Horretarako, udaletako kirol arduradunentzako eta kudeatzaileentzako jarduera-kanpainak proposatu, koordinatu eta gauzatuko ditu.
 - b) Bizkaiko erakundeek kirol ekipamenduak eta azpiegiturak eraiki, handitu, berritu eta aldatzeko bideratzen dituzten baliabideak koordinatzea.
 - c) Udalekin elkarlanean jardutea, Bizkaiko kirol mapa prestatzen eta eguneratzen.
 - d) Udalen eta mankomunitateen eremuan kirola sustatzeko eta bultzatzeko neurriak proposatzea, neurriok kudeatzea eta, behar denean, haien jarraipena egitea.

VI. KAPITULUA

KULTURA ONDAREAREN ZERBITZUA**19. artikulua**

- Zerbitzuaren titularrak zerbitzuburu maila du, eta foru dekretu honetako 8.3 artikuluan bildutako eginkizunak betetzen ditu, betiere zerbitzuko atalei dagozkien gaietan. Eginkizun orokor horiez gainera, Kultura Ondarearen Zerbitzuko buruak berezko dituen eginkizun hauek bete behar ditu, besteak beste:
- a) Esku hartzeko baimenak proposatzea, kultura-ondarearen osagai diren ondasunei buruz.
 - b) Egin beharreko ikuskapen-lanez arduratzea, kultura-ondarea zaintzeko, batetik, eta ondare arkeologikoa eta etnografikoa sustatzeko eta babesteko, bestetik; horrez gainera, Bizkaiko Foru Agiritegi Historikoaren eta Foru Liburutegiaren inguruan Aldundiak dituen eskumen eskusiboak kudeatzea.
 - c) Aldundiaren errestaurazio atala zuzentzea eta haren ekintzak koordinatzea.



- d) Honako agiri hauek bideratzea: kultura-ondasunak eskuratzeko behar diren txostenak, eragin urbanistikoari buruzko txostenak, aurretiazko baimenak eta ingurumenaren gaineko eraginak eskatzen dituen txostenak.
- e) Liburua eta irakurzaletasuna sustatzen eta hedatzen lagunduko duten kultura-jarduerak bultzatzea, bai eta beste liburutegi batzuekiko koordinazioa sustatzea ere.
- f) Foru Liburutegiaren ondare bibliografikoa eta hemerografikoa kontserbatzeko eta, behar denean, zaharberritzeko neurriak bultzatzea.

Bilboko María Díaz de Haro kaleko 11. zenbakian dagoen higiezia zaintzea eta egokitzea, bai eta Kultura Ondarearen Zerbitzuari atxikita dauden beste higiezin guztiak ere.

20. artikulua

Kultura Ondarearen Zerbitzuak honako atal hauek ditu:

- Esku-hartze Arkitektonikoaren Atala.
- Foru Agiritegi Historikoaren Atala.
- Liburuzaintzaren inguruko Aholkularitzarako Atala.
- Funts Bibliografikoak Kudeatzeko eta Foru Liburutegia Sustatzeko Atala.

21. artikulua

1. Esku-hartze Arkitektonikoaren Ataleko buruak atalburu maila du, eta foru dekretu honetako 9. artikuluan bildutako eginkizunak betetzen ditu, betiere bere atalari dagozkion gaietan.

2. Esku-hartze Arkitektonikoaren Ataleko buruak, oro har, Bizkaiko ondare higiezin hori kontserbatzeaz eta hobetzeaz arduratu behar du, eta, zehazkiago esateko, berezko dituen eginkizun hauek beteko ditu, besteak beste:

- a) Bizkaiko ondare higiezia (Aldundiarena zein besterena) sustatu, kontserbatu, hobetu eta zaintzeko jarduera-ildoak eta proiektuak proposatzea, kudeatzea eta haien jarraipena egitea, eta, behar denean, haiek zuzentzeko neurriak proposatzea.
- b) Euskal Kultur Ondareari buruzko Legearen arabera Foru Aldundiaren aurretiazko baimena behar duten proiektu publikoei zein pribatuei buruzko txostena egitea eta haiek ikuskatzea.
- c) Gune historikoak dituzten udalek zaharberritze plan berezien edo antzeko beste batzuen babesaren pean gauzatzen dituzten egintza administratiboak ikuskatzea eta haien jarraipena egitea.
- d) Hirigintza-planak onetsi baino lehen behar diren aholku-txostenak prestatu eta bidaltzea, bai eta ingurumenaren gaineko eraginaren eskakizunen ondoriozkoak ere.
- e) Bizkaiko ondare higiezinako kultura-ondasunen kontserbazio-egoera ikuskatzea eta horren gaineko aholkuak ematea, bai eta ondo kontserbatzen direla zaintzea ere. Horretarako, haien egoera edota gorabeheren berri emango dio zerbitzuko buruari, eta, behar denean, zuzentzeko neurriak proposatu.
- f) Espedienteak abiarazteko proposamena egitea zerbitzuko buruari, Bizkaian dauden ondare higiezin kulturalak kalifikatu edo inbentarioan sartzeko.

22. artikulua

1. Foru Agiritegi Historikoaren Ataleko buruak atalburu maila du, eta foru dekretu honetako 9. artikuluan bildutako eginkizunak betetzen ditu, betiere bere atalari dagozkion gaietan.

2. Oro har, atal honek Bizkaiko Foru Agiritegi Historikoa kudeatzeaz arduratu behar du, eta, zehazkiago esateko, berezko dituen eginkizun hauek bete beharko ditu, besteak beste:

- a) Dokumentu historikoen funtsen erabilera publikorik onena eta egokiena lortzeko neurriak proposatzea.
- b) Foru Aldundiak zaintzen dituen funts historikoak kontserbatu, inbentarioan jaso, sailkatu eta katalogatzea.



- c) Bizkaiko udalekin harturiko konpromisoak kudeatzea, haien funtsak Bizkaiko Foru Agiritegi Historikoan gordetzeko dagoen hitzarmenaren barruan.
- d) Euskal Kultur Ondareari buruzko Legearen arabera izaera historikoa lortu duten funtsak eskuratzeko eta agiritegira biltzeko (bakoitza berari dagokion arlora) ahalgintza egitea, baldin eta funtsok Foru Agiritegi Historikoari atxikitzeak badira.

23. artikulua

1. Liburuzaintzaren inguruko Aholkularitzarako Ataleko buruak atalburu maila du, eta foru dekretu honetako 9. artikuluan bildutako eginkizunak betetzen ditu, betiere bere atalari dagozkion gaitan.

2. Oro har, atalburu honi dagokio Foru Liburutegiak zerbitzuarekin eta beste erakunde batzuekin duen harremana koordinatzea eta horretan aholku ematea, eta, zehazkiago esateko, berezko dituen eginkizun hauek bete beharko ditu, besteak beste:

- a) Liburugintzaren arloan aholku ematea.
- b) Foru Liburutegiak beste erakunde eta liburutegi batzuekin dituen harremanak eta koordinazioa hobetzeko eta sendotzeko proposamenak egitea.
- c) Ondare bibliografikoa eta hemerografikoa ikuskatu, kontserbatu, zaharberritu eta garbitzeko neurriak proposatzea.

24. artikulua

1. Funts Bibliografikoak Kudeatzeko eta Foru Liburutegia Sustatzeko Ataleko buruak atalburu maila izango du, eta foru dekretu honetako 9. artikuluan bildutako eginkizunak betetzen ditu, betiere bere atalari dagozkion gaitan.

2. Oro har, atalburu honek berezko dituen eginkizun hauek bete beharko ditu, besteak beste:

- a) Foru Liburutegiko arloak kudeatzea.
- b) Funts bibliografikoak hautatzeko eta eskuratzeko proposamena egitea.
- c) Funts bibliografiko eta hemerografikoen katalogo eta inbentarioen prozesatze teknikoa kudeatzea.
- d) Foru Liburutegiaren esku utzi den Bizkaiko Legezko Gordailuaren ardura hartzea eta hura kontrolatzea.

VII. KAPITULUA**KULTUR EKINTZAKO ZERBITZUA****25. artikulua**

Zerbitzuaren titularrak zerbitzuburu maila du, eta foru dekretu honetako 8.3 artikuluan bildutako eginkizunak betetzen ditu, betiere zerbitzuko atalei dagozkien gaitan. Eginkizun orokor horiez gainera, Kultur Ekintzako Zerbitzuko buruak berezko dituen eginkizun hauek bete behar ditu, besteak beste:

- a) Bizkaia-erentzat intereseko diren pertsona eta erakunde kulturalen sormen artistikoa, kultura-zabalkundea eta kultura-jarduera sustatzea eta bultzatzea.
- b) Proposamena egitea, erakunde publikoekin eta erakunde pribatuekin akordioak egiteko, kultura sustatu eta zabaltzeko.
- c) Aholku ematea Bizkaiko udalei eta Bizkaiko Foru Aldundiak babesten dituen lurralde historikoko kultura-erakundeei, honako gai hauetan: kultura-programazioa, kultura-azpiegiturak, kultura-jardueretan ariko diren langileen trebakuntza eta kultura-programen diseinua eta kudeaketa juridiko-ekonomikoa.
- d) Ume eta nerabeentzako udaleku eta kanpamentuen eskaintza kudeatzea.
- e) Foru Aldundiaren Argitalpenen Planaren gertakuntza zuzendu eta edukiak gainbegiratzea.

**26. artikulua**

Kultur Ekintzako Zerbitzuak atal hauek ditu:

- Argitalpenen eta Kultura Zabalkundearen Atala.
- Gizarte eta Hezkuntza Programen Atala.

27. artikulua

1. Argitalpenen eta Kultura Zabalkundearen Ataleko buruak atalburu maila du, eta foru dekretu honetako 9. artikuluan bildutako eginkizunak betetzen ditu, betiere bere atalari dagozkion gaietan.

2. Atal honetako buruari, oro har, honako hauek dagozkie: Euskara eta Kultura Sailaren Argitalpenen Plana gertatzea, bai eta kultura suspertzeko neurriak programatzeko eta gauzatzeko atazak zuzentzea eta koordinatzea, bai eta kultura zabaltzeko berezko jardueri dagozkienak ere, eta, zehazkiago esateko, berezko dituen eginkizun hauek beteko ditu, besteak beste:

- a) Sormenari, kulturaren zabalkundeari eta kultura-ekimenei laguntzeko neurriak programatzea, eta haiek aplikatzea.
- b) Bizkaiko udalei eta Bizkaiko Foru Aldundiak babesten dituen kultura-erakundeei honako gai haueetan hobetzen lagunduko dieten neurriak bultzatzea: kultura-programazioa, kultura-azpiegiturak, kultura-jardueretan ariko diren langileen trebakuntza eta kultura-programen diseinua eta kudeaketa juridiko-ekonomikoa.
- c) Euskara eta Kulturako Foru Sailaren kultura zabaltzeko jarduerak programatu eta kudeatzea, betiere bere jarduna Bizkaiarentzat interesekoak diren kulturako beste kolektibo eta erakunde batzuekin koordinatuz.
- d) Sailak berak herritar guzientzat antolatzen edo sustatzen dituen formatu bereziko kultura-gertakariak programatu, garatu, kudeatu eta ikuskatzea.
- e) Zehar-eremuko kultura-jarduerak bultzatu eta indartzea.
- f) Hauek proposatzea: Argitalpenen Plana, haien edukiaren balioespina, eta urtero Foru Aldundiaren argitalpenen katalogoa gertatzea, bai eta Foru Aldundiaren argitalpenen banaketaz eta argitaratze-funtsa zaintzeaz arduratzea ere.

28. artikulua

1. Gizarte eta Hezkuntza Programen Ataleko buruak atalburu maila du, eta foru dekretu honetako 9. artikuluan bildutako eginkizunak betetzen ditu, betiere bere atalari dagozkion gaietan.

2. Gizarte eta Hezkuntza Programen Ataleko buruak, oro har, gazte-aterpetheen foru sarea mantentzeaz eta kudeatzeaz arduratu behar du, bai eta gizarte- eta hezkuntza-programak kudeatzeaz ere, eta, zehazkiago esateko, berezko dituen eginkizun hauek beteko ditu, besteak beste:

- a) Aterpetheen administrazio-lanak zuzendu eta ikuskatzea, eta aterpetxe horiek mantentzeaz eta behar duten ekipamenduaz arduratzea.
- b) Ume eta nerabeentzako udaleku eta kanpamentuen eskaintza egitera bideratutako programak proposatzea.
- c) Aterpetxeetan garatutako programen barruko egonaldiek eragindako sarrera publikoen kudeaketa administratiboa egitea, bai eta programa horiek garatzeko kontratu eta hitzarmenena ere.
- d) «Albergues e instalaciones de estancias para grupos infantiles y juveniles-Haur eta gazte taldeen egonaldietarako instalazio eta aterpetxeak» izendapen ofiziala emateko edo ezeztatzeko txostenak egitea.
- e) Ume eta nerabeentzako udaleku eta kanpamentuen eremuan lanean diharduten pertsonen prestakuntzari arreta jartzea.
- f) Txostena egitea aitorten, ohartarazpen, ezeztatze eta horiek kentzeko ebazpenei buruz, izan ere, horiek guztiak aisia eta astialdirako eskola ofizialei buruzko araudian ezarrita daude.

**VIII. KAPITULUA**
EUSKARA ZERBITZUA**29. artikulua**

Zerbitzuaren titularrak zerbitzuburu maila du, eta foru dekretu honetako 8.3 artikuluan bildutako eginkizunak betetzen ditu, betiere zerbitzuko atalei dagozkien gaitetan. Eginkizun orokor horiez gainera, Euskara Zerbitzuko buruak berezko dituen eginkizun hauek bete behar ditu, besteak beste:

- a) Euskara normalizatzeko eta sustatzeko Bizkaiko Lurralde Historikoan hartu behar diren neurriak proposatzea Euskara Zuzendaritza Nagusiari.
- b) Bizkaiko Foru Aldundiak, plangintza-aldi bakoitzean, Euskararen erabilera normalizatzeko onetsi behar duen planaren diseinua proposatzea Euskara Zuzendaritza Nagusiari.
- c) Txosten teknikoa egitea Euskara Zuzendaritza Nagusiari, hark hizkuntza-irizpi-deak proposa ditzan arlo hauetan: kontratazioak, langileen etengabeko trebakuntza, argitalpenak, administrazio-baimena edo -emakida behar duten jarduerak, eta diru-laguntzak.
- d) Txosten teknikoa egitea Euskara Zuzendaritza Nagusiari, Bizkaiko Foru Aldundiaren mendeko erakundeetako euskara planak ebaluatzeko behar diren irizpi-deak zehazteko, bai eta erakunde horien euskara maila egiaztatze ere.

30. artikulua

Euskara Zerbitzuak atal hauek ditu:

- Hizkuntz Normalizazio Atala.
- Hizkuntza Gizarteratzeko Atala.
- Itzulpen, Terminologia eta Hizkuntz Teknologiarren Atala.

31. artikulua

1. Hizkuntz Normalizazio Ataleko buruak atalburu maila du, eta foru dekretu honetako 9. artikuluan bildutako eginkizunak betetzen ditu, betiere bere atalari dagozkion gaitetan.

2. Atal honetako buruaren ardura da, oro har, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta haren foru erakunde autonomoen euskalduntze-planak prestatzea eta euskararen erabilera-planak abian jartzea, bai eta Bizkaiko Foru Aldundiari hizkuntza-aholkularitza eskatzen dioten erakunde publikoei laguntza ematea ere. Zehazkiago esateko, berezko dituen eginkizun hauek beteko ditu, besteak beste:

- a) Bizkaiko Foru Aldundiaren lanpostu guztien hizkuntza-eskakizunak zehaztea, bai eta lanpostu horiei dagozkien derrigortasun-datak esleitzea ere, plangintza-aldi bakoitzean bete beharreko derrigortasun-indizeen arabera.
- b) Bizkaiko Foru Aldundiaren langileen hizkuntza-eskakizunei, derrigortasun-datei zein eta hizkuntzaren jakite-mailei buruzko datu-basea eguneratuta izatea.
- c) Jarduera-programak prestatzea, Bizkaiko Foru Aldundiko langileen hizkuntza-trebakuntzarako.
- d) IVAPi laguntzea, Bizkaiko Foru Aldundiko langileen hizkuntzaren jakite-maila neurtzeko, bai eta hizkuntza-eskakizuna egiaztatze probak egiteko ere.
- e) Bizkaiko Foru Aldundiko, haren foru erakunde autonomoetako eta Aldundiaren partaidetzapeko gainerako erakundeetako hizkuntza-egoera aztertzea, bai eta Aldundiaren barruko sentsibilizazio-kanpainak egitea ere.

32. artikulua

1. Hizkuntza Gizarteratzeko Ataleko buruak atalburu maila du, eta foru dekretu honetako 9. artikuluan bildutako eginkizunak betetzen ditu, betiere bere atalari dagozkion gaitetan.



2. Atal honetako buruaren ardura da, oro har, euskara sustatzea eta txertatzea Bizkaiko Lurralde Historikoko gizartearen alor guztietan. Zehazkiago esateko, berezko dituen eginkizun hauek bete beharko ditu, besteak beste:

- a) Neurriak proposatzea, Euskara Sustatzeko Ekintza Planean xedaturikoa gizarte-ko eremu guztietan betetzeko.
- b) Bizkaiko Lurralde Historikoan hizkuntzaren normalizazioaren alde lanean diharduten elkarten jarduerak bultzatzea eta koordinatzea.
- c) Euskararen erabilera indartzera zuzendutako eskolaz kanpoko jardueren garapenean laguntzea.

33. artikulua

1. Itzulpen, Terminologia eta Hizkuntz Teknologiaren Ataleko buruak atalburu maila du, eta foru dekretu honetako 9. artikuluan bildutako eginkizunak betetzen ditu, betiere bere atalari dagozkion gaietan.

2. Itzulpen, Terminologia eta Hizkuntz Teknologiaren Ataleko buruak hauen gaineko ardura du, oro har: Bizkaiko Foru Aldundian sortzen diren testuen eta Europar Batasunean, esangurarik zabalenean, sortzen diren itzulpena egitea; hizkuntza-teknologiaren arloan dauden tresna-baliabideen erabilera bultzatzea, eta euskarazko administrazio-hizkeraren nahiz terminologia juridiko-administratiboaren batasuna, normalizazioa eta garapena bultzatzea zein toponimia eguneratzea, eremu horietako beste administrazio publikoekin, eta erakunde publiko eta pribatuekin elkarlanean. Zehazkiago esateko, berezko dituen eginkizun hauek beteko ditu, besteak beste:

a) *Itzulpen arloan:*

Sailek eskatutako agiriak euskaratik edo euskarara itzultzea; horrezaz gainera, itzulpen lanak koordinatzea, eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialaren argitalpen elebidunaz arduratzea.

Hizkuntza ofizialak erabiltzeko aurretiaz ezarritako jarraibideen osagarriak izateaz gainera, jarraibideekin bat egiten duten itzulpen-irizpide tekniko eta soziolinguistikoak finkatzea. Erabilera-jarraibide horiek arian-arian aplikatuko dira, administrazio-atal elebidunak zehazten diren neurrian, eta haiek aplikatzean zehatz agertuko da zein diren itzulpen beharrak.

b) *Terminologia arloan:*

Arian-arian euskarazko hizkera juridiko-administratibo modernoa sortu, estandarizatu eta hedatzen dela bultzatzea, bai eta terminologia juridiko-administratiboa finkatzen dela ere, eremu horietako beste administrazio publikoekin zein erakunde publiko-pribatuekin elkarlanean; terminologiaren arloko foro eta batzorde guztietan parte hartzea, eta haiekin elkarlanean aritzea, terminologiako datu-banku bat sortzeko.

Euskaltzaindiarekin batera, Bizkaiko Foru Aldundiak eskuratuta dituen eskumenen ondorioz Aldundiak berak burutu behar dituen agiri, mapa, errotulu eta abarretan azaltzen diren toki-izenen azterketa egitea.

Azterlan terminologikoak eta lexikografikoak egitea.

c) *Hizkuntza-teknologiaren arloan:*

Hizkuntza-teknologiaren arloan dauden tresna eta baliabideen erabilera bultzatu eta zabaltzea, esaterako: itzulpenak egiteko aplikazio lagungarriak, itzulpen automatikorako aplikazioak, ortografia eta gramatikaren zuzentzailea, on-line hiztegiak, euskararen datu-base lexikala, etab.